



*Hainbat sindikatuk, alderdi politikok eta gizarte eragilek manifestaziora deitu dute iganderako, Espainiako Auzitegi Nazionalak Nafarroako hainbat foru legeren kontra hartutako neurriak salatzeko. Iruñean izango da protesta, Foruen monumentutik abiatuta, 13:00etan, eta LAB dago deitzaileen artean.*

Hau da agerraldian irakurri duten adierazpena:

Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi du 8/2013ko Lege Forala. Lege honek Dohako osasun laguntza unibertsala arautzen zuen. Honekin batera bertan behera utzi ditu 24/2013ko legearen zati batzuk, etxebizitza eskubidea bermatzera zuzenduak zirenak hain zuzen. Aspaldi honetan Nafarroako Parlamentuak onartutako lege sorta baten azken adibideak dira. Izan ere Auzitegi Konstituzionalak lege horiek behin behinean suspentsioan utzi eta ondorenean indargabetu baititu. Beste adibide larria da 18/2012ko legea bertan behera utzi izana, lege horren bitartez Nafarroako Foru Komunitateak laguntza farmazeutikoa bermatzen baitzuen.

Deklarazio hau sinatzen dugunok Espainiar Estatuan dagoen bultzada zentratzailea eta sozialki atzerakoia. Auzitegi Konstituzionalak eta Estatuko beste instantzia batzuetatik hartzen ari diren erabaki horiek babesarik gabe uzten ditu egoera larrietan dauden pertsonak. Gure ustez atzerapausoak honako gaietan gertatzen ari dira:

1) ESKUBIDEAK. Erabaki judizial hauek eskubide batzuk gabe uzten ditu behar gehien duten pertsonak. Beraz, kohesionatua eta pertsona guztientzat eskubide berdinak bermatuko litzkeen gizarte eredu baterantz urratsak egitea galarazten dute.

2) NAFARROAKO AUTOGOBERNUA ETA ERABAKITZEKO AHALMENA. Nafarroako jendartearen borondateak, lege horien onarpenean islatzen denak, berdintasuna eta justizia sozialaren norabidean urratsak egitea bilatzen zuen. Baina hori galarazi nahi duten erabaki judizialekin topo egin du

3) DEMOKRAZIA. Politikaren judizializazioak demokrazia bera suspentsioan uzten ari da.

Deklarazioa sinatzen dugun eragile eta pertsonok honako konpromisoak hartzen ditugu eta aldi berean Nafarroako jendarte osoa deitzen dugu berauekin bat egitera:

1) Pertsona guztientzat eskubide guztien defentsa eta bermea. Bereziki Auzitegi Konstituzionalak hartutako erabakiekin urratu dituen eskubideak.

2) Nafarroako Autogobernuaren defentsa eta Nafarroako gizarteari eragiten dizkioten gai guztietan hemen erabakitzeko ahalmena defendatzen dugu.

3) Nafarroa eremu demokratiko gisa defendatzea.

Azkenik, martxoaren 18an, eguerdiko 13etan, Foru Monumentuaren aurrean (Sarasate Pasealekua) egingo den mobilizazioan Nafarroako herritar guztiak parte hartzera deitzen ditugu. Honekin batera, eragile sozial, sindikal eta politikoei deialdi honekin bat egiteko gonbitea luzatzen diegu.

—